

» **TELEGRAMA**


Udako zinema zikloa aurkeztu du Donostiako Tabakalerak: uztailaren 8tik abuzutaren 26ra, Tangerko Cinématèquek proposatutako filmak eskainiko dituzte, baita musikaz, kantuz eta dantzaz beteriko filmak ere **STOP Jeremy Deller** artistaren erakusketa ikus daiteke ekainetik Azkuna Zentroan: *Brexit* garai hauetan, kultura ingelesari buruzko gogoeta proposatzen du, bere kontraesan politikoekin **STOP Eloorrioko Musikaire jaialdiak** ekitaldiz beteriko uztaila proposatzen du: Quimi Portet edo Izaki Gardenaken kontzertuak, mikroantzerkia, Matxalen Bilbaoren eta Legacy dance companyren dantza ikuskizunak... ez galdu aukera! **STOP**

» **DISKOA**

Bi kantu zirraragarri



Joxi Ubeda



Joseba Irazoki eta Lagunak

JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK

Acuarela, 2016

Bi kantu entzun daitezke Joseba Irazoki eta Lagunak taldeak Madrilgo Acuarela diskoetxearekin kaleratu duen biniloizko singlean. Biak oso onak, zirraragarriak.

Rock, folk, blues eta psikodelia aireak suma daitezke kantuetan, doinu iradokitzaileak. Moldaketak eta apaintetak oso landuak eta oso ongi eginak daude. Ukituak, xehetasunak eta zarata txikiak nonahi ageri dira, baina denak beren tokian ongi kokatuak daude.

Irudipena kantua bizia eta indartsua da, erritmo zoro samarra du, eta doinu errepikakorrek dira bere ardatz nagusiak.

Udaberriko eguzki, berriz, lasaiagoa da, eta doinu ederrez eta gazi-gozoez osatua dago.

Irudipena kantuaren hitzak Xabier Gantzarainen testu batean oinarrituta daude ("Batere mundurik gabe ernatzen da egunero gizaki mundurik gabea, asmatu egin behar du egunero bizitzeko moduko mundu bat") eta *Udaberriko eguzki* kantuarenak Beñardo Goietxek idatzi ditu ("Udaberriko eguzki fereka gaitzazu, zainduta edo zaindu gabe, denok zorigaitz arrisku, gaitz galdu edo ezbehar batek utz gaitzake aditzeke ku-ku").

Joseba Irazoki (ahotsa eta gitarra), Felix Buff (bateria), Jaime Nieto (baxua), Ager Insunza (gitarra, *pedals-teel*-a eta biolina), Iban Urizar (klarinetea eta teklatuak) eta Ibai Gogortza (saxofoia) aritu dira grabazio saioetan Iñigo Irazoki eta Jon Agirrezabalaga teknikariekin; Jonan Ordorika masterizazioaz arduratu da, Nerea Serrano diseinuaz, eta Maddi Irazokik azaleko marrazkia egin du. Denen artean lana oso ongi burutu dute.

Joseba artista da, musikari eta musikagile aparta, eta bere lagunak musikari bikainak. Oso ongi sinkronizatutako orkestra txiki bat dira. Single bat plazaratu dute, lan laburra, baina oso polita. Atsegin handiz entzuten ari naiz. Egunotan jendaurreko emanaldietan aurkezten ari dira. Besteak beste, Gorlizen abuztuaren 4an joko dute eta Bilbon abuztuaren 24an. ■



Joseba Irazoki eta Lagunak taldea, jo eta su zuzenean.